


# AZKEN AMAZONA

**NINA ALMBERG**

ITZULPENA: JOSU ZABALETA



n a r r a t i b a

ere in



AZKEN AMAZONA

n a r r a t i b a • 149

erein

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2023ko abenduan*

Jatorrizko izenburua:

*La Dernière amazone*

Azaleko irudia:

Ivan Landa

Maketazioa:

Erein

© Nina Almberg

© Hors d'atteinte, 2020.

Published by agreement with AM Agency, France.

© itzulpenarena: Josu Zabaleta

© edizio honena EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-819-5

L.G.: D 952-2023

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107 - 20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

T 943 835 008

[itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Nina Almberg

AZKEN AMAZONA

*Itzulpena*

Josu Zabaleta









*Letra etzanez idatzita dauden ezohiko  
hitz arrotz guztiek liburuaren bukaeran  
datorren hitz-zerrendan dute azalpena.*



*Azken amazona hau liburu itxura hartzen ari zen  
bitartean nire sabelean hazten ari zen Felixi dago  
eskainia, eta orobat idazteko abenturan abiatzen  
ausartu ez den François-eri eta historia honen  
inspirazio-iturri izan diren Amazoniako  
emakume eta gizon guztiei ere.*



*Brasilgo iparraldeko oihan zabaletan gizonezkorik gabe bizi ziren emakumeen tribu bat ote zen aipatzen duen lehenengo aztarna idatzia XVI. mendekoa da. Gaspar de Carvajal domingotar misiolariaren Relación del nuevo descubrimiento del famoso río Grande liburuak gertaera hauek aipatzen ditu: 300 espainiarrek, ia beste horrenbeste zaldirekin, gizakiak ehizatzen trebatutako zakurrekin, armak eta hornizioak garraiatzeko eta zaindu eta eramateko 4.000 indiar esklaborekin, Ande mendiak igarotzen dituzte kanela-zuhaitzen bila, Gonzalo Pizarro dutela buru, zenbait urte lehenago inken inperioa suntsitu zuen Francisco Pizarroren anaia. Urrutitik ikusten eta entzuten dituzte indiarrek, bertara iritsi baino lehen: ez baitira jende multzo isil eta arina, hain justu.*

*Andeetako mendikatearen lehenengo mendilerroa igaro bezain laster, Papallacta haraneko Kijo indiarren geziei aurre egin beharrean aurkitzen dira. Ez dute kontuan hartzen lehenengo ohar-tarazpen hori, eta gero eta oztopo handiagoak topatuko dituzte.*

*Mendi-lepo elurtuen ondoren ibar heze sakonak etorriko dira; lurririkaren ondoren, euri-jasa bortitzak, aldika-aldika ekaitzez eta lokatz-isuriz tantotuak. Igo, jaitsi, berriro igo, berriro jaitsi, hontzari, beroari, heriotzari aurre egin. Batzuek estropezu egiten dute, bide-bazterrean erori eta hantxe geratuko dira hiltamuan, azkenetan; eta giza ilara luzeak haien ondotik jarraituko du sigisagan: onik ateratzen direnek aitaren egin eta beste norabait begiratu dute. Mendien beste aldean dagoen kanela-zuhaitzak hartu gogoan; ez dute besterik buruan. Gauean, jan eta ahalik eta lasterren lo hartu, lurraren gainean, eskua ezpataren giderean dutela.*

*Beste mendi-lepo bat, beste jaitsaldi bat, eta horra soldaduo-ostea begiek ikusten duten arte guztian hedatzen den oihan trinko baten aurrean. Ezin hura igaro pazientzia handiz aihotzez pasabide bat zabaldu ezean. Zaldiek ez dute ezertarako balio; zerririk hil dira.*

*Goiz batez hidalgo gosetu bat, sukar horiak ahitua, azken ahaleginetan bere ukondoan gainean bermatu eta gauean urrutitik ahots batzuk gaztelaniaz mintzatzen entzun dituela esan, eta, indar guztiak husturik, berriro ohatzean erortzen denean hasten da berriro itxaropena pizten. Beste gizon batzuek ere entzuten dituzte armadura-hotsak eta ahotsak, sumatzen dituzte giza itzalak sasi eta abar artean neke handiz mugitzen, eta geroago sasitzatik irteten ikusten dituzte. Horra Francisco de Orellana kapitaina, XVI. mendearen hasieran Trujillon, Estremaduran jaioa, 1637an Santiago de Guayaquil hiria berriro sortu eta harrezkero hiri hartako gobernari izana. 1965ean Espainiako postak zigilu batean ezarriko du europarrei Mundu Berriko amazonak ezagutarazi zizkien gizon haren aurpegia:*

*begirada bizia, sudur zuzena, bizarra eta bibotea ondo ebakiak, kaskoa eta armadura dizdizari.*

*Urreak eta kanelak erakarririk, hogeita hiru gizonekin abiatua zen, Pizarroren gudarostearekin bat egiteko asmoz; oraintxe egin du topo harekin, ustekabean ia-ia. Francisco de Orellanak bere ibilaldia kontatzen dio Pizarrori; hari entzunda, balirudike pasiera bat izan dela haren ibili guztia. Gizonetako bat bera ere ez zaio hil, adore handiz eta bipilki borrokatu dira denak beren bidean topatu dituzten indiar guztien kontra, bizkor eta beldurrik gabe egin dute aurrera. Tropikoetako sukarrek, paludismoak eta disenteriak hingatuta, eltxoek lur jota daukaten bere gudarosteari begiratuta, Pizarro ernegatu egiten du gizon ahobero, handiusteko hark: hain harro ibiltzeko, hobe du lanari ekin. Kanela-zuhaitzen bila aitzindari abiatzeko agintzen dio Pizarrok. Orellanak obeditu egiten du; handik egun batzuetara itzultzen da ishpingo-arbola bat ekarriz, kanelaren halako antz pixka bat duen arbola bat. Pizarrok begi-bistan ikusten duena onartu beste erremediorik ez du: kanelarik, balio handiko zuhaitz mota horretakorik ez dago Mundu Berrian. Amorruren amorruez, atzeman dituen indiarretako batzuk zakurrei botatzen dizkie, eta haiek hil eta jan egiten dituzte, eta beste batzuk egur-meta handi bat egin eta han erretzen ditu.*

*Neke handiz berriro beren bideari loturik, zer janik ez dutela aurkitzen dira soldaduak, ibai handi baten ertzean. Gerora Coca ibaia deituko dena da, edo Napo ibaia, beste bertsio batzuen arabera. Orellanak boluntario eskaintzen du bere burua ibaian behera jo eta janari bila abiatzeko. Pizarro, ez baitu beste aukerarik, ados agertzen da. Horra, bada, kapitaina beste berrogeita zazpi gizonekin almadia egin berri batean eta zenbait*

*piraguatan uretaratuta. Aitaren egin eta zin egiten diete ibaiertzean geratu direnei berehalaxe itzuliko direla; baina, sinetsi, ez dute askorik sinesten horretan. Orellanak azaldu zaion lehendabiziko aukera aprobetxatu du gudaroste oies hartatik alde egiteko: beretzat izango da aintza, El Dorado aurkitu izanaren ospea, eta baita, agian, Ozeano Atlantikorako irtenbide ezezagun bat aurkitu eta, horrenbestez, Peru eta Espainiaren arteko itsasbide berri bat aurkitu izanarena ere. Bere susmoa egia bada ere, oraindik ez daki sei hilabetez ibili beharko duela ibai erraldoi bateko eta haren ibaiadar batzuetako uretan noraezean. Pizarro ez du berriro ikusiko, hura oihanean geratu baita bere gainerako soldadu guztiekin, zaldiak eta zakurrak janez eta ekuatoreko euri-jasa bortitzak pairatzen. Handik sei hilabetera laurogei gizon itzuliko dira haietatik, hezur hutsetan, Quitora, ilea zuritirik, zomorroz estalirik, lur jota.*

*Orellanak kontu handiz aukeratu ditu bere ihesaldirako keimentsuentzat zeuzkan gizonak, eta baita Gaspar de Carvajal ere, bere ospearen kronika idatziko dion fraidea. Orellanak Pizarroren gudarostetik ihes egitea ongi estaltzea izango da haren lehenengo eginkizuna, eta ongi burutuko du, burutu ere, eginkizun hori: «Berrehun legoatan ez genuen janaririk aurkitu. Eskasia larriak jasan behar izan genituen horregatik. Eta hala gindoazen, gure Jaunari egoera hartan gida gintzala erregutuz, berriro gure bidaideengana onik itzuli ahal izan gintezan».*

*Kapitaina hara eta hona dabil inondik ere ezagutzen ez duen mundu eta paraje batean. Egunero-egunero aztertzen du ea baden itsasoaren seinalerik, itsasgorarik edo itsasbeherarik, ur gazirik, itsasoko hegaztirik. Ibaiak itsasotxo baten antza du zenbait lekutan. Baliteke ur zuri, gezatan agertzen diren animalia*



*erraldoiak itsasoko ur sakonetatik etorriak izatea. Orellanak manatia estimatzen du batez ere: izaki erraldoi bat da, «idi-arraina» deitzen du eta oso haragi gozokoa da. Ur gezatako izurdeak, arrosa kolorekoak zein grisak, noiz agertuko zain egoten da, askotan ondoratzen baitira beren almadia-edo ahal bezala egin haietara. Baina begirada uretatik jasotzen al du, itxura bestelakoa izan arren hura itsasoa ez dela gogoratzen dion landare-hesia topatzen dute begiek.*

*Gaspar de Carvajalek ikusten duena idazten du, edota etorkizuneko belaunaldiei, edo, halabeharrak hala nahi badu, egunen batean berriro Espainiara itzultzen bada, Koroari jakinarazteko egokia iruditzen zaiona, hobeto esanda. Lehenengo ikusten duena ezereza da: ez gizakirik, ez janaririk, landareak alde guztietan, hustasun-sentsazio nabarmena eraginez, soldadua beren oinetakoetako larrua jatera beharturik, belarren bat edo bestez atonduta.*

*Gudaroste txikitxoa zalantzazko errutina horretan finkatuta dagoela, ordea, 1542ko ekaineko arratsalde batean –fraide idazkariaren egitekoen artean baitago egunean eguneko gertakarien kontu zehatza jasotzea, inola ere, eta ez zaio ahazten eguneko santuak aipatzea–, Carvajalek tamaina ertaineko herri bat bezala deskribatzen duen leku batean lehorreratzen da; plaza handi bat du erdian, eta hartan totem moduko bat dago jasota, arreta handiz landutako «hamar oineko zutoin karratu bat». Marrazkietan hesi batez eta idazkariak lehoitzat hartzen dituen baina izatez zalantzarik gabe jaguarrak diren basapiztiek inguratutako herri bat irudikatzen du. Herri hura norena den jakiten saiatu ondoren, amazonena dela ulertu uste du. Herritarrek, amazonen eginez, aldiro-aldiro ekarriko dizkiete haiei beren ara- edo*

*guakamaio-lumaz osatutako zergak, beren etxeetako sabaiak apain ditzaten. Ibaian aurrera jarraituta, totem berbera topatuko du Carvajalek beste herrixka batean, amazonekiko mendekotasunaren adierazle. Jakin-mina piztuko zaio, eta egunetik egunera areagotuz joango zaio emakume horiek topatzeko desira.*

*Amazonak! Bere buruari argi eta garbi aitortu gabe ere, espedizioaren hasiera-hasieratik ari da Gaspar de Carvajal haiek noiz topatuko. Mundu Berriko elezaharren parte baitira, zakur-buruia duten gizakiak, ziklopeak edo erraldoiak bezalaxe. European Grezia zaharreko mitologiaren interesa piztu du Berpizkundek, eta konkistatzaileek uste osoa dute berriki aurkitu diren lurraldeetan topatuko dituztela mitologiako izaki haiek. 1493an bertan Kristobal Kolonek bere adiskide Luis de Santangeli igorritako gutun batean dio Karibe itsasoan badela emakumeak baizik bizi ez diren uharte bat: «Karibeek badituzte merkataritza-harremanak Martininoko uharteko emakumeekin; uharte hori da Espainiatik Indietara joaterakoan topatzen den lehenengoa, eta han ez da gizonezkorik bizi. Emakume horiek ez dira aritzen emakumezkoen eginkizunetan, arkuaz eta kanaberaz egindako geziez aritzen baitira, eta kobrezko xaflaz estaltzen dute gorputza, ausarki baitute horretatik».*

*Haren ondoren, dozenaka konkistatzaile aritu da amazonen bila Mexikotik Paraguarainoko guztian, ez alferrik. Emakume gerrari haiek ustekabeko mauka ziratekeen Orellanarentzat eta Carvajalarentzat, beren menturazko gurutzada hura Historian sarrrarazi behar zuen zertzelada, hain zuzen.*

*1542ko ekainaren 24an, ohi bezala hainbat herrixka bake-tsu igaro ondoren, bertako indigena talde baten eraso jasaten du gudaroste txikitxoak. Hamarka piragua mehe eta zorrotz*

*hurbiltzen dira espainiarren almadietara eta segadan harrapatzeko inguratzen dituzte. Alde guztietatik erortzen zaizkie geziak. Eta ezin atzera egin: piragua gehiago iristen dira hurrengo samaldan, espainiarrak oztopatuta dauzkan lehenengo hesia indartzera.*

*Ordu arteko hilabeteetan konkistatzaileek ez dute eraso askorik jasan. Orellanak ez du ulertzen nondik datorren bat-bateko oldarkortasun hori. San Joan Bataiatzaileari, eguneko santuari, gomendatzen zaio eta errukia eskatzen dio. Eta ondoren ihes egiten saiatzea erabakitzen du, erantzuten ahalegindu ordez. Piragua arinen horma hartan arrakala bat sumatzen du eta hartara gidatzen ditu dagoeneko zailduta dauden arraunlariak. Indigenak, are subarkiago, haien atzetik ekiten diete. Bost espainiar zauritzen dituzte beren geziez. Gaspar de Carvajal, geziak saihestean zauriturik, ozta-ozta libratzen da hiltzetik.*

*Beren almadietan ageriegian daudenez, borroka uretan jarraitzera behartzen dira eta, horretarako, urpeko demonioei dieten beldurra gainditzera. Orellanak ez du ulertzen bere etsaien tema gizon asko galtzen ari badira ere. Zergatik luzatzen dute gudua? Zer nahi dute? Geroz eta hildako gehiago dago uretan, eta kapitainak ez luke nahi bere soldaduak ere haien artean ikusterik.*

*Une horretantxe, ordea, etsaien indarra handitzeko lagungarriak azaltzen dira oihanetik, eta ibaiertzeko hondartza zurietatik beren piraguak uretaratzen dituzte. Emakumeak dira, emakumezko gudariak, espainiarren harridurazko begiradaren aurrean guduan parte hartzera etorriak. Geroago Carvajalek idatzita jasoko du: «Oso zuriak eta handiak dira; ile luze-luzea dute, buru gainean txirikordatuta eta bilduta. Gihartsuak dira eta biluzik dabilta; lotsariak baizik ez dituzte estaltzen; arkuak eta*

geziak dituztela, hamar indiarrek adina balio du haietako ba-koitzak». Dozena bat dira.

Aurreko egunetan ibaiertzetako indiar herrixketan sumatu di-tuen seinaleen egiaztapena ikusten du fraideak haiengan: ama-zonak ederki ezkutatuta daude amaierarik gabe luzatzen den ekuatoreko oihan honetan. Pozik onartzen du ezin itzurizko aurrez aurreko konfrontazioa; aurkitzen den egoera guztiz larria izanagatik, pozik dago horrelako egoera baten lekukoa delako.

Badirudi emakumeek agintzen dietela gainerako indiarrei. Haien zain baitzeuden indiarrek, haiek bukatu behar dute bo-rroka. Emakumeek ausartak izatera animatzen dituzte; Carva-jalek ez ditu ulertzen haiek esanak, baina konbentzimenduz eta handitasunez oihukatzen dituzte. Lehen lerroan kokatzen dira, piraguen aurreko aldean orekan, orpoen gainean kukubilko, ar-kuak tenkaturik eta konkistatzaile txundituei begirada zorrotzak botaz. Gudua su eta gar pizten da berriro. Carvajal alde batera alboratu da eszena hobeto ikusteko: «Halako kemenez borroka-tzen ziren non indiarrek ez baitziren ausartzen bizkarra ematera. Gure aurretik ihes egiten zutenak makilakadaz hiltzen zituzten. Horregatik defenditzen ziren hain ongi indiarrek».

Espainiarren almadiak estalita daude haiek trebeziaz jaurti-kitako geziez, eta arantzurdeak dirudite dagoeneko. Baina borro-kan jarraitzen dute hala ere. Emakumeen kontra dihardutelako ez dute, horrenbestez, errukitsuago jokatuko. Baleztariak eta arka-buzdunek gudua amaitu nahi dute batez ere. Indar-oreka alda-tuz doa poliki-poliki: espainiarrek emakume batzuk hiltzea lortzen dute; horrek hainbesteraino balditzen ditu arerioak, non ez baitira gai ezta borrokan jarraitzeko ere. Etsaiak bat-batean zurrundurik ikusita, haiek astuntasun horretatik esnatu baino

*lehen ihes egitea erabakitzen dute Orellanaren soldaduek... Artean bizirik daudelako pozez, ahalik eta bizkorren ekiten diote arraunean, harik eta, aski urrundu ondoren, ibai-bazter abegitsu bat begiztatu eta hantxe lehorreratzen diren arte. Masa trinko, dardaratsu bat eratzen dute uraren eta oihanaren artean, eta gauerako kanpamendu bat antolatzen ahalegintzen dira nola edo hala. Atzera egin baino lehen, ordea, kapitainak etsaien gudarrietako bat atzeman du, informazioa atera ahal izateko. Gainerako soldaduak xuxurlaka ari dira inguruan, susmoz eta aieruz. Batzuek diotenez, zentauroak topatuko dituzte bihararmunean. Beste batzuek diotenez, berriz, oihanean barna abiatuko dira, gudukatu berri dituzten amazonen bila. Beren etorkizuna indiar horren ezpainetan dagoelako sentipena dute guztiek.*

*Oihanean gau ilun trinkoa da. Sugarrek dantzan dihardute presoaren aurpegian. Kapitaina haren hitzen esanahia deszifratzen saiatzen da; ahal duen bezala interpretatzen ditu, ongien egokitzen zaionaren arabera. Eta, erantzun gisa, galderak egiten ditu, hitz egin ahala asmatzen duen hizkuntza batean, ibaian zehar egindako bidaiari han-hemenka jasotako hitzekin nahastutako gaztelania batean, keinu ugariarekin. Han dago fraide idazkaria, solas-zirriborro horretan oinarrirituta broda-lana egiteko. Bi gizonok beren etorkizuna eraikitzen ari dira une horretan, ulertu ere nekez ulertutako, neurri handi batean asmatutako baina, hala ere, zehaztasun handiz transkribatutako historia-istorio batean oinarririturik.*

*Kontakizun horren arabera, ibaiertzetako biztanleei laguntzera heldutako emakume gudari haiek oihan-barreneko lurraldeetatik, Francisco de Orellana eta haren soldaduei eraso zieten*

lekutik oinez zazpi egunetara zegoen lekuren batetik etorriak ziratekeen. Barreiatu bizi ziren atez hornituriko etxebizitza sendoak zituzten hainbat herrixkatan. Preso duten indiarak era horretako hirurogei herrixkatik gora ezagutzen zituen, itxura zenez; eta ibiltzeko bide egokiz lotuta omen daude herri horiek. Hark dioenez, emakumeak baizik ez dira bizi herri horietan, baina sarri joaten dira gizonak eta emakumeak bizi diren beste herrixka batzuetara. Horrelako herriak —bera ere horietako batetako da— emakumezkoen jaurerri baten mendekoak dira. Gizon eta emakume asko joaten zaizkie, Ande mendietatik beraietatik hasita, mendekotasuna aitortzera. Bera ere behin baino gehiagotan joana da horretara. Sarri egiten dituzte haurrak beste herrietako gizonekin; jaiotzen diren mutikoak gizonen herrietara bidaltzen dituzte, eta neskatoak berenean gorde. Aberatsak dira; beren etxe sendoez gainera, metal landuak eta abereak ere ba omen dituzte. Oso zibilizazio sotila eta hierarkizatua dute. Dama nagusiek urre eta zilarrezko platerak erabiltzen dituzte; herri xehekoek, berriz, zurezko eta buztinezko ontziteria.

Orellanak, bere itzulpenaz harro, aske uzten du indiarra. Presa du Karlos V.ari amazonen kontra borrokatu dela jakinarazteko. Carvajal bezalaxe, bera ere guztiz konbentziturik dago Greziako mitoetako emakume gudariak direla emakume haiek, Asia Txikitik alde egin eta Mundu Berrian babesa aurkiturik.

Harrigarriena, hala ere, beste hau da: Orellanak galera handi-handirik gabe burutu zuela bere asmo zentzurik gabea. Bere berrogeita hamazazpi bidaietatik hamaika hil ziren ibai mugagabe hartan. Ibaiaren deltako meandroetara iritsirik, Ozeano Atlantikoa topatu zuten bizirik zirenek. Beren almadia hauskorrek baino ontzi handiago eta sendoago bat eraiki eta onik eta

*salbu itzuli ziren Espainiara. Orellana berak «aurkitutako» lurraldeetako gobernari izendatu zuten. Bere ospeaz gozatzen astirik galdu gabe, laurehun gizon eta lau itsasontzirekin abiatzen da berriro, lurralde haiez jabetzeko asmoz. Tamalez, ordea –beretzat tamalez– ez du aurkituko amazona sonatu haiek eraso egin zioten ibai handiaren adar nagusia, eta 1545ean hilko da, sukar gaiztoz, ibai barreneko uhartedi-labirintoan ez aurrera ez atzera blokatirik, oihan zabalaren ateetan.*

*Espainian «Amazonas» izenez bataiatuko dute soldadu taldeak 1542an mendebaldetik ekialderantz igarotako ibai erraldoia. Haren inguruko oihanari, berriz, «Amazonia» izena emango zaio. Gauza jakina da toponimia hori ez dela aldatu gaur egunean ere. Azkeneko hamarkada hauetan behin eta berriro esaten denez, galbidean omen dagoen, basogabetzearen azkeneko fasean omen dagoen oihan mugagabe hori, beren lurraldeak defenditzeko gizon zuriei eraso egin zieten bertako emakume indigena gudarien izenaz bataiatu izan da.*

*Nor ziren emakume haiek? Nola bizi ziren? Zer bilakatu ziren? Gaur egun ere bizi ote da haietakorik oihanaren barrenan, gizon zuriengandik babestuta, esamesek eta greziar mitoeke diotena gorabehera?*

*Gaur egun bertan ere, Amazoniako arro osoan, emakumeek –eta baita gizon batzuek ere– beren bizi-ereduaz eta beren hitzaz, emakume haiek biziarazten jarraitzen dute.*



# TABULA GEOGRAPHICA PERUÆ, B





# BRASILIAE & AMAZONUM REGIONIS.

N O R D



CARTE  
DE LA TERRE FERME  
DU PEROU, DU BRÉSIL  
ET DU PAYS DES AMAZONES.

Dessiné par les Sieurs de la Hire et de la Roche, et par M. de la Roche, et sur plusieurs Relations et Observations particulières.

Par Guillaume Delisle, Geographe

à l'Académie Royale des Sciences

à AMSTERDAM

Chez JEAN COTEVAL et

COMMISAIRES VIREUX

Geographes

à Paris.

BRÉSIL  
nommé cy devant  
TERRÉ DE  
SAINTE CROIX

Nation des  
Tupi

qui s'étend depuis le  
Cape de la Rivière de  
S. Vincent

jusqu'à la Rivière de  
S. Paul

et qui s'étend le long de  
la Rivière de S. Paul

jusqu'à la Rivière de  
S. Vincent

et qui s'étend le long de  
la Rivière de S. Vincent

et qui s'étend le long de  
la Rivière de S. Vincent

GOYANE

ONÉS

GUAYANA

Orient

Mer du Nord



## Beatriz

Ai Icamiak, nola kontatu zuen historia? Ez zaudete gure artean eta zuengandik dugun oroitzapena bera ere espainiar zarpatsu eta erotu haiek bihurritua dugu. Beren aliatuei laguntzera etorritako emakume gudari talde batean bularra moztuta omen zuten Asia Txikiko emakume gudariak ikusi uste zituzten. Bestetasuna ulertzeko gauza ez zirelarik, beren buruak eta gogoetak oinazetzen, eta beren fantasmak berpizten zizkieten eta beren herrialdean ospetsu egingo zituzten mitologiako emakume haiek zinetela uste izan zuten. Zuen historia desitxuratu zizueten, eta ez iraganik ez etorkizunik gabe utzi zintuzten.

Bahiketa horrek mendeetako usteak itxuratu ditu. Gu gara bahiketa hori: gure parte da, gure gorputzak eta gure irudimena kolonizatzen dizkigu. Belém, Manaus, Santarém, Gurupá, Óbidos, Itacoatiara, Parintins, Nhamundá, oihan zabal honetako hiri, herri eta herrixka guztietan, ibai handi eta txiki guztien ertzetan amazoniarrak deitzen gara orain,